

URRUZTI

(Mind Up)

Zenbat pertsona daude denbora faltagatik azterketetarako apunteak egiteko denborarik ez daukatenak? Askok gutxi edo gizartearen minoria bat dela pentsa dezakezue, baina ez da horrela. Gure esperientzian eta gertuko enegoaren oinarrituta, eskolaz kanpo gauzak dituzten ikasleek behar dena baina denbora gutxiago eskaintzen diote eskolari; eskemak edo apunteak egiterako orduan. Horregatik, ikasleek apunteak egiteko behar den denbora murriztu dezaten, argazki bat erabilita apunteak automatikoki egingo dizkizun *adimen artifizial* bat sortu dugu.

Gu Mikel, Oier, Naier eta Danel gara eta Urretxu-Zumarraga Ikastolako batxilergoko lehen mailan gaude.

Aplikazio hau sortzea pentsatu dugu horrelako aplikaziek egotearen beharra dagoela uste dugulako. Gu ikasleak garenez, beti amestu dugu mota honetako aplikazioekin, tresna berri honek lana murriztuko digu. Mind upek munduan zehar dauden hizkuntza asko ulertu ditzake, eta edozein gaiei buruz egin ditzake eskemak zein apunteak.

Pertsona bakoitzak ikasteko erreztasun desberdina du, horregatik, aplikazio honek ikasteko zailtasunak dituenari lagunduko dio.

Beste alde batetik, urtetik urtera ikasleak kurtsoz pasatzen diren bitartean, ikasgai bakoitzak duen exigentzia geroz eta altuagoa da, horren ondorioz, etxerako lan gehiago edukiko dituzte, denbora gutxiago ikasteko... orduan, tresna berri honekin arazo hau duten ikasleei lagundu diezaiokegu. Honek ez du esan nahi etxerako lanik egin ditzakeela aplikazioak, gauza da, etxerako lan gehiago daudenez, ez dago denbora asko apunte, eskema zein laburpen egiteko, horregatik oso lagungarria da gertu horrelako tresnak edukitzea.

